

**PIARRES BROUSSAIN, EUZKO-IKASKUNTZA'REN
LENDAKARI ORDEA
(1918-1920)**

Piarres Charritton

Euzko-Ikaskuntzaren historia haste hastetik ikertzen duenak, Piarres Broussain jaun medikuaren izena, nahi-ta-ez, aurkitzen du bere bidean.

Izen hori guziz ezaguna bazen ere, gure Herriko euskaltzale handien artean, mende honen lehen hogoi urteetan, 15 urtez Hazparneko auzapez eta Euskaltzaindiaren sortzailetarik izana zen Piarres Broussain, 1920 eko apirilean, hiru-hogoi urtetan, bapatean, hil zenez geroztik, Resurrección Azkue eta Jean Etchepare bere adiskidez beste, nehor gutik zuen aipu (1).

Nihaurk ezagutu ez dudan herritar abertzalearen begitartea aurkitzen saiatu naiz, hark R. Azkue edo G. Lacombe-kin kurutzatu gutunak argitaratuz behin (2). Euzko-Ikaskuntzaren inguruan dabilzan paper eta gutun zenbait dauzkat orai hemen solas gai. Hauetarik gehienak, *Euzko Ikaskuntzatik* ukanak zituen Broussain-ek, edo hari bidaltzeko prestatuak; Jenofa Broussain-Le Roy andere zenak ezagutarazi zizkidan. Besteak aldiz, Broussain-ek berak *Euzko-Ikaskuntzara* bidaliak zituenak, Idoia Estornes Zubizarretak eskuratu dizkit, eta horren gatik eskerrak bihurtzen dizkiot andere horri.

Bi sail nagusitan jarri ditugu paper guziak: Lehen sailean biltzen dira:

— Julio de Urquijo, 1. lendakari ordearen gutun bakarra (7-I-1919).

— Julian Elorza, 1. lendakariaren lau gutunak (30-XII-1918; 18-II-1919; 3-IV-1919; 10-IX-1919).

— Angel de Apraiz, 1. idazkari nagusiaren bi gutunak (3-III-1919; 6-V-1919).

— P. Broussain-ek Donostian egin azken hitzaldia (1919-IX-21).

Bigarren sailean aurkitzen dira:

— P. Broussain-ek J. Elorza-ri bidali bost gutunak (17-III-1919; 28-III-1919; 5-V-1919; 4-IX-1919; 13-IX-1919).

— P. Broussain-ek A. Apraiz-i bidali lau gutunak (23-IV-1919; 20-VI-1919; 30-VI-1919; 14-VII-1919).

— P. Broussain hil ondoan, *Euzko Ikaskuntzaren Deia-k* idatzi artikulua (1920-111-6).

* * *

(1) — R. Azkue, “Documento interesante, manuscrito de P. Broussain”, Euskera, 1930, 229-238. orr.

— J. Etehepare, “Beribilez”, Baiona, 1931, 5. orr.

(2) — P. Charritton, “Pierre Broussain, sa contribution aux études basques”, Paris C.N.R.S., 1985.

— Id., “Les Lettres de Pierre Broussain à Georges Lacombe”, Bulletin du Musée Basque, N. 108, 109, 110, 111; 1985-II, III, IV; 1986-I.

— Id., “R. M. Azkue eta P. Broussain-en arteko elkarridazketa”, Bilbo Euskaltzaindia, 1986.

Julio de Urquijo - Pierre Broussain

St-Sébastien, 7 Janvier 1919

Cher Docteur,

Je me suis permis de vous proposer comme 2ème vice-président de la nouvelle Société d'Etudes Basques, fondée avec l'appui des Députations basques. Vous avez été élu à l'unanimité et vous recevrez plus tard tous les détails de la nouvelle société qui compte déjà avec des subventions importantes.

Cordialement à vous,

J. de Urquijo (1)

* * *

- (1) Julio de Urquijo (1871-1950) euskaltzale handia nor izan den, ez da erraite beharrik, "Revue Internationale des Etudes Basques" hau bera, berak, 1907 an, sortu zuen. Jarraian emaiten dugu gutun honen fotokopia.

St Sébastien 7 Janvier 1919

Cher Docteur, je me suis permis de vous proposer comme 2ème vice-président de la nouvelle Société d'Etudes Basques, fondée avec l'appui des Députations basques. Vous avez été élu à l'unanimité et vous recevrez plus tard tous les détails de la nouvelle société qui compte déjà avec des subventions importantes.

Cordialement à vous

J. de U

Julián Elorza - Pierre Broussain

Donosti, 1918. urteko Lotazilla'ren 30

Pierre Broussain jaunari
Hasparren

Jauna: Oñati'n egin ziran batzar ederren ondorengo bezela, *Euzko-Ikaskuntza* deritzaion Elkarte bat irasi edo agerrerazi degu. Ni egin naute Lendakari edo buru, Urkijo jauna lendabiziko Lendakari-ordezko, ta zu bigarren.

Atsegin aundia izan degu, zure izena gurien artean ikusiaz, eta aurrerantzean ere, orrelasê elkartuta erabiltzeko eskubidea emango diguzula uste degu. Datorren larunbatean, eguardian, Donostia'n egingo degu batzar bat, eta bertan zu ikusteaz poz aundia artuko genduke.

Agur, jauna; gohoz estutzen dizu eskua zure erritar eta adiskide onek.

Julián Elorza (1)

* * *

- (1) Julián Elorza (1878-1964), Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehendakaria eta Euzko-Ikaskuntzaren lehen lehendakaria ez zuela orduan ezagutzen aitortu zion Broussain-ek Azkue-ri. Bestalde uste izan zuen, "irasi" berri zuten Elkarte hori zela aspaldian igurikatzen zuen euskal Akademia. Azkenekotz Elorzak deitzen zuen bilkurala joaiterik ez zuen Broussain-ek izan, gutun hau Bordalen gaindi luzamendutan ibili zelakotz zentsuraren gatik: P. Charriton, "R. M. Azkue eta P. Broussain-en arteko...", op. cit., P. Broussain-en 1919, urtarillaren 30eko gutuna, 313-314. orr.

Julián Elorza - Pierre Broussain

Donostian 1919'ko Otsailaren 18'an.

Mr. Pierre Broussain

Nere adizkide ona:

EUZKO IKASKUNTZA'ko buru batzarra datorren illeko 2'an arratz-aldeko iru terditan bilduko da Donosti'ko Diputazioan.

Ajola aundiko batzarra izango da (1), ta onengatik zu emen gurekin batera, ikusteak poz aundia emango liguke.

Len esan dizutan bezela, lenengo batzarra Epailako 2'an arratz-aldeko iru terditan batuko da ta bigarregoa 3'aren goizian.

Idazki onekin batian bialtzen dizkizut batzarrean erabilliko diran gaien agiria.

Ongi dakizu zu emen ikusteaz poz aundi bat izango detala.

Julián Elorza

* * *

- (1) Jarraian emaiten dugu batzar horren egitaraua. Bestalde, bilkuraren ondotik, Broussain-ek berriak igorri zizkien bere adiskide Azkue eta Lacombe-ri: Ikus Lacombe-ri idatzi martxoaren 22 ko gutuna ("Bulletin du Musée Basque", 1986-1, 23. orr.) eta Azkue-ri idatzi apirilaren 24 ko gutuna (Azkue-Broussain, op. cit., 317-319. orr.).

ORDEN DEL DIA

para las reuniones que el Consejo Permanente de la SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS debe celebrar en San Sebastián, los días 2 y 3 de marzo de 1919.

* * *

Fallecimiento de D. Modesto Huici (q.e.p.d.).

- 1.º Gestión del Comité Ejecutivo.
- 2.º Circular anunciando la constitución de la Sociedad e invitando a los amantes del País Vasco a que se alisten en ella.
- 3.º Nombramiento de las Comisiones delegadas para Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.
- 4.º Boletín de la Sociedad.
- 5.º Distintivo y lema de la misma.
- 6.º Su relación con la entidad o Academia de Lengua Vasca y con otros organismos.
- 7.º Cursos de lengua vasca.
- 8.º Solicitudes a Prelados y Colegios, referentes a Lengua.
- 9.º Trabajos de investigación prehistórica.
- 10.º Conclusiones del Congreso de Oñate en la sección médica.
- 11.º Idem. de la Sección de Arte.
- 12.º Informes sobre archivos del País Vasco y de los que radican fuera de él, en cuanto puedan interesar a la cultura vasca.
- 13.º Publicaciones de la Sociedad.
- 14.º Iniciativas en materia de enseñanza.
- 15.º Conferencias.

* * *

Julián Elorza - Pierre Broussain

Donosti'an 1919'ko Jorrailaren 3'an.

Pierre Broussain jaunari,

Agur adiskide ori:

Artu det zure idazkitsoa eta era bat gure EUZKO IKASKUNTZA'ren deia Lapurdi'ko euzkerara biurtua. Ongi dago. Zuk egiten dituzun guziak apaiñak ateratzen dira.

Gaisotua egondu naiz egun abetan eta orregatik ez dizut erantzun lenago. Barkatu bada nere berandutasuna.

Emengo gauzak ondo dijoaz. Gure Diputazioak ontzat artu du Akademiko araudia; beste Diputazioak ere, nere ustez, laister ontzat artuko dute (1).

Agindu zure adiskide.

Julián Elorza

* * *

(1) Gipuzkoako Diputazioak apirilaren 11 an egin zuen urrats hori. Bizkaikoak maiatzaren 5 ean, Arabakoak eta Nafarroakoak irailaren 2 an eta 3 an: *Euskeria*, I-1, Donostia, 1920, 46. orr.

Julián Elorza - Dr. Broussain

San Sebastián, le 10 Septembre 1919

Mr. Pierre Broussain
Maire de
HASPAREN

Cher ami:

Le Comité exécutif de EUZKO IKASKUNTZA a ratifié votre nomination pour adresser aux congressistes de la ASAMBLEA DE ADMINISTRACION MUNICIPAL, à la session de fermeture (sic) —dimanche 21 à onze heures et demie— une tres courte allocution en langue basque, en votre double qualité de vice-président de notre Société et de maire de Hasparren.

Vos collègues, les maires de Bilbao, Pamplona et Vitoria adresseront aussi dans la même séance, leurs salutations à l'Assemblée (1).

Agréez, cher Monsieur et ami, avec mes remerciements, l'assurance de ma considération la plus distinguée.

Julián Elorza

* * *

(1) Ikus jarraian, Piarres Broussain-ek eman zuen hitzaldi labur hori, Donostiako *Pueblo Vasco* egunkariak argitaratua.

Asamblea de Administración Municipal Vasca
(San Sebastián, 21-IX-1919)

Pierre Broussain, Bigarren lendakari-ordezko
eta Azparne'ko endorearen itzaldia

Frantziako endore edo alkate euskaldunen izenean natorkizute, aien agur anaitar eta bero bat ematera. Ni bezala emen izatu balire, ederretsiko zituzten batzarre onetan egin diran lanak, eta ikusiko zuten Probitzietako eta Naparrako udal edo Ayuntamientoen gogoia zein sutsu dan Euskalariaren alde.

Batzarre onetara etorri gabe banekian zuen berri, eta gu, Euskaldunak, atzeratuak gerala esaten duten erdaldunei erantzungo diet:

“Atozte onera, eta ikusiko dezute zer egin duten emengo udalek: Begiratu itzazute Bizkaia eta Gipuzkoako bide ederrak, itsasportu ontziz beteak, industria aberatsa, orrenbeste gizonai ogia ematen diena. Atozte Donostiara eta esango didazute ba danetz au bezelako uri asko, argiz eta urez aberats, bere kale zabal eta garbiekin, bere etxe, eliza eta jauregi ederrekin. Olako uri pollita, Donostia, Euskalerriko lorea, nor egin du? Udal edo Ayuntamiento euskaldun batek”.

Gu, Frantziako Euskaldunok, ikusirik nolako aurrerapenak egin dituzten Españako gure anaiek, burua txit gora ibiltzen al gera: Ez ote gera odol eta izkera berekoak? Ez ote ditugu ekandu berak?

Bidasoako ura ugari izanarren, ez dauka gure odolak bezinbat indar.
Gora Euskalerrria!

(“Pueblo Vasco”, San Sebastián, 22-IX-1919)

Angel Apraiz - Pierre Broussain

Donosti'an 1919 Epaillaren 3'an

Broussain'tarr Pierre jaunari.

Agur jaun ori:

Idazki onekin batean bialtzen dizut Mujika jaunak idatzitako Gipuzkoako izketan deia (1) (sic). Gaur goizian ematia astu zait eta orrengatik bialtzen dizut Lapurdiko biurpena egin dezazun.

Agur bada, ta badakizu nun daukasun nai guzirako zure laguna,

Angel de Apraiz (2)

* * *

(1) Gipuzkoako euskalkian Gregorio Mujika (1882-1931), *Euskalerraren Alde-ko* zuzendariak idatzitako deia emaiten dugu jarraian. Ohartzeko da Broussain-ek paper hori baliatu zuela, Bazkun berriaren buruzagiak sailkatzeko beren politika alderdiaren arabera. Bere burua "nacionalista", hots abertzaleen sailean sartzen zuen, Campion, Urabayen, Eleizalde, Armendaritz, Kunchillos, Elgezabal, Gortazar eta Eguren bezala.

EUZKO-İKASKUNTZA

Oñati'n igazko Irailaren lenengo astean egindako Euzko-Ikaskuntza-Batzar gomutagarian, eun eta eun batzarkide ospetsu ta argidunek azaldutako gurari bizia izan zan, lenegotik be askoren asmoetan egoan egikizuna, arean: aitaturi-ko Batzar atan ekindako bearak aurerantz eroateko gai litzaken Bazkuna irastea.

Orelako gogo zindo ta erikoyaz sortua da Bazkun au, ta zelabait *Sociedad Vascongada de Amigos del País'en* aure-eredua arturik, ahal daun batasunaz bere ekin-gayak aurrera eragiteko asmo betez datortzue, beste eri yagibari ta bizkorenetan, gizadi osoaren itzal eta eskarekaz, ikusten diran Ikaste ta Aditalgun-Bazkunen bide beraxe yaraitu gura daularik.

Gaitza ta edatsua da, ziñez, gure Bazkun aunek erein gura ta bear daun arloa, ta oraindaño gustiz gutxi landu ta aras uriro aztertu dalako, oraingo ekite bariaz uzta ugari-ugariak eskeintzen daukuz. Gure egikizun ta lan-gayak aunexek dira: gure ahalmenaren neuriz, Oñati'ko Batzararen erabagiak betetzea, ta erabagi aunetan erne-gai lez dagozan azi onak sor-eraztea, arean: Batzar-Idaztiaren eta batzarkide-arteko batasun-bidea izango dan Ingurtiñoaren argitalbena; Euzkera yagon, zabaldu ta garbitzeko bear dan eralguntza irastea (enda-iku' guren au yagoteko beara orok abots batez autortzen dabe-ta); gure erti, eresi ta eri-yakiteak eskatzen daben arduraz aditaldu, bildu ta irauneraztea, gure ertilarien bari banakatuak orobat bildurik; gure Edestaldi-aureari, Endelesti ta Giza-neuriztitzazko itaungunei yagokezan lanak aurrera eroate; Osakintzak, Erkelestiak eta Eri-Osasunbideak aurkezten daukuezan gorapiloak lenbañolen azkatzea; antziñatik datorskuezan eta orain daukoguzan eri-lagi-gayak aditaldu ta argitzeko bear diran Batzordeak eraltzea; gure eritari yagoxon irakaskuntzarentzako bide bari ta zuhuragoak zabaltzea; ta guenez, itz uritan

esateko, antziñalditik artu doguzan gai oro, adimenez ta idartziz aztertzea, gure Edestia yaraitu ta etorkizuna ahalik ondoen atondu dagikeguntzat... Aunexek dira, politika deritzonaren ataz, gure egikizun eta asmo gurenak, eta egikizun eta asmook betetzeko, gai diran gure gizonen zuhurtasun eta ahalmenak eskatzen doguz, orobat atatik urgazi gura izango dauskuenen laguntza, gure egintzaren sorpenak Euzko-Eri osora ta bere uri nagosi ta txikaren eta auzorik urunekoenetara be edatuko diran ezkerero.

Asmo aunegaz gure Aldundiak eta gure Udalik nagosienak euren urgazpen betea emoten daukue. Bardin eskatzen dautsegu beste askori, arean: yakite-bazkunei, euren langideak izatea gura dogu-ta; gure itz-otsa abegiz artu gura izango daben izparingiei; gure asmook ontzat etsiko dabezan gustiei. Ta batezpe, euzko oroi, gure ta euren Bazkunaren bizitza euren eskuetan dago-ta.

1910—Eपाला—2

Kanpion'dar' Arturo,
Omen-Lendakaria.

Elorza'tar' Julián,
Lendakaria ta Gipuzkoa'ko Aldundia-
ren Ordealaria.

Unda'tar' José María,
Araba'ko Aldundiaren Ordealaria.

Juanmartinena'tar' Juan José,
Naparra'ko Aldundiaren Ordealaria.

Elguezabal'tar' Kosme,
Bizkai'ko Aldundiaren Ordealaria.

Urquijo, Julio,
Lenengo Lendakari-Ordea.

Broussain, Pierre,
Bigaren Lendakari-Ordea

Mujika, Gregorio,
Idazkari-Ordea.

Urabayan'dar' Lontzi,
Diruzaiña.

Artola'tar' Biktor,
Diruzain-Ordea.

Arantzadi'tar' Telesporo,
Eleizalde'tar' Koldobika,
Allende-Salazar, Juan,
Echegarai'tar' Karmelo,

Armendariz'tar' Klaudio,
Kunchillos'tar' Jagoba,
Orueta'tar' José,
Autarkideak.

Bilbao'tar' Esteban,
Landeta, Eduardo,
Gortazar'tar' Jabier,
Eguren'dar' Endrik,
Apraiz'tar' Angel,
Idazkari nagosia.

* * *

1918-Lotzila-22'ko Batzaran erabagi eban Bazkun aunek, beingoz 250 laurleko gutxienez ordainduko dabezanekaz bazkide-talde berezia eraltzea, "biztaldi-bazkideena" deritzakena, aldra aunetako bazkideak iloroko ordainbenetik yarei etsiko diralarik, aunela gura ba dabe.

1919-Urtarila-4'ko Bazkun beraren erabagiz, ta Bazkun-Araudiko XIII arauaren azkenengo zatia betetzeko, Oñati'ko batzarkide izan ziran bazkun eta notiñak "Euzko-Ikaskuntza" ren *bazkide iraslaritzat* etsiko dira, urbil doan txantelaren bidez Bazkun auni adi-erazorik zenbateko iloro-ordainbena emon gura ete-leukeen. Osterantzean, eta beste gatzigurik ezpa'lego, bazkide-ordainben txikarena ezariko yake.

* * *

IDAZKI TA GAZTIGU ORO, Oficinas de la Sociedad de Estudios Vas-
cos.—Palacio de la Diputación de Guipúzcoa.—San Sebastián'RA BIDLADU.

GAZTEIZ (Vitoria).— Fuertes y Marquinez'en etxean.

Angel Apraiz - Pierre Broussain

6 de mayo de 1919

Sr. Pierre Broussain

En cumplimiento del acuerdo adoptado en la última reunión de la Junta Permanente, el día 3 de marzo, de que el Sr. Artola elaborase un estudio detallado del proyecto de Asamblea o Conferencia de Administración Municipal, dicho compañero nuestro redactó el que adjunto enviamos a Vd., designado con el n.º 1. Comunicamos éste, según se acordó también en dicha Junta, a la de Cultura Vasca de Bilbao y a personalidades competentes de Alava y Navarra, habiendo recibido ya, como consecuencia de dicha consulta, respuestas muy entusiastas y prácticas indicaciones. En vista de todo ello, el Comité Ejecutivo, en su reunión de 28 de abril, hizo un detenido estudio del asunto, que se concreta en el proyecto n.º 2, acordando enviarlo a todos los miembros de la Junta Permanente, para que en el caso probable de no reunirse ésta hasta que comiencen las vacaciones del verano, pueda el Comité, mediante la autorización que Vdes. le concedan, ultimar dicho plan, entablando la necesaria relación con las personas que han de encargarse de conferencias y lecciones, y de las cuales adelantamos algunos nombres, que han parecido convenientes al Comité, pero sin que aún nos hayamos dirigido a nadie, esperando el parecer de Vdes. miembros de la Junta Permanente sobre los transcritos y otros que Vdes. nos puedan designar. De la misma manera, tendremos un gran placer en atender cualquier indicación sobre temas o cualquiera de los extremos de organización de dicha asamblea, que seguiremos ultimando en la reunión del Comité, dentro de algunos días, interpretando el no recibir para entonces parecer contrario de alguno de los miembros de la Junta Permanente como aprobación suya y salva siempre la que esperamos de la Junta en pleno en su primera sesión.

Con el gusto de anticipar a Vd. muy gratas impresiones sobre la buena acogida de que va siendo objeto nuestra sociedad en todo el país, y de los trabajos que realizamos en ejecución de anteriores acuerdos, se repite de Vd. atto. s.s. y a.

Angel de Apraiz

(eskuz idatzirik)

Muy agradecida su extrema carta del día 23, adjuntas le remito la prueba de la circular labortana y un ejemplar de los 4.000 que se han hecho de la francesa. Después de haber hecho la tirada, en mi ausencia, llegó la prueba corregida por Vd. y hemos visto con dolor que aquélla tiene bastantes erratas, tanto que nos hubiéramos decidido a inutilizar la edición y hacer otra nueva, si no fuera por las dificultades que hay para ello y sobre todo el mucho tiempo que han empleado en la imprenta para hacer la anterior, lo que repetido ahora retrasaría la propaganda, que preparamos con la edición francesa por todo el mundo.

En la circular labortana que hemos corregido con gran cuidado espero que no pasará lo mismo. He procurado seguir estrictamente todas las indicaciones de Vd.; pero en lo que se refiere al empleo del "tarr" y de los nombres euskéricos nuevos, no me he atrevido a cambiar lo que antes hicimos después

de consultar a todos los interesados, pues algunos de éstos han manifestado expresamente que su nombre en euzkera es Lontzi o Koldobika o Endrik. En este asunto de las firmas mejor que al uso general habrá que atender a la voluntad de las personas interesadas, que cada uno firme como le parece, y aunque supongo que si se hubiera expuesto a cada uno la indicación de Vd. hubieran accedido a ello por deferencia, esto hubiera sido muy largo y acaso más acertado no pedirles nosotros ese sacrificio.

Vamos a hacer 2.500 ejemplares de la circular labortana, que remitiremos en seguida a las personas de ese país que fueron Congresistas de Oñate y son por tanto Socios Fundadores de *Euzko-Ikaskuntza*; y también a las que figuran con apellido de ese lado del Pirineo en las listas de sociedades vascas en América: siempre acompañada también de la versión francesa, y casi en todos los casos del Boletín próximo a publicarse. Agradeceremos mucho su lista de personas a quienes pueda interesar la Sociedad al Norte del Bidasoa; acaso nos pudiéramos servir de algún anuario para hacer la propaganda más extensa. Lo que yo lamento es que esos hermanos nuestros no fraternicen con nosotros desde el comienzo de la Sociedad. Estamos con Vd. por causa de las traducciones en deuda que arreglaremos cuando Vd. venga. s.m.a. Apraiz.

Dr. Broussain - Elorza jauna

Azparne'tik Epailaren 17-an 1919

Elorza jaunari agur.

Igortzen dizut *Euzko-Ikaskuntza'ren* deia Frantzia'ko erdarara itzulia (1). Laister bialduko dizut dei bera Gipuzkoa'ko euskaratik Lapurdi'ko euskarara itzuli-ta. Barkatu diezadazu ez ba-dizut lenago erantzun: Azparne'ko endore edo alkate bezala lanez itoa naiz.

Artu itzazu nere biotzetikako goraintziak.

Dr. Broussain

* * *

(1) Jarraian dator frantses itzulpenaren zirriborroa, Piarres Broussain-ek berak eskuz idatzia.

Société d'Etudes Basques

Au Congrès de réinovation d'Etudes Basques tenu (parlementaire)
 à Orreata la première semaine de Septembre dernier, plusieurs cen-
 taines de Congressistes, représentant^{ant} ^{par} eux-mêmes et par leur vote unanime
 et des intérêts du Pays, sanctionneront ^{par} l'idée d'une Société (personnelle) à laquelle il appartenait de
 mener à ^{fin} la tâche entreprise (inaugurée) par la dite assemblée.
 Cette société vient d'être (soit) constituée; (soit) créée. Elle est
 due d'un mouvement (collectif) aussi unanime que ^{joint} ^{de} ^{la} ^{Basque}
 et (grâce à) l'unité d'action que cette unanimité lui permet d'exercer
 dans l'œuvre de culture où la "Sociedad Vascongada de los Ami-
 gos del País" l'a, on peut le dire, précédée, elle se propose de réaliser
 l'exploration (la mise en valeur) intensive de toutes nos ma-
 gnitudes en suivant l'exemple donné par les Académies, les Insti-
 tuts et Centres d'Etudes des pays qui (grâce à) ^{par} ^{ce} ^{travail}
 de trouver la base la plus solide à l'affirmation de leur caractère
 (personnel) (personnalité), ou qui la (la) maintiennent toujours rigou-
 reuse dans le monde au milieu de ^{l'oubli} ^{de} ^{la} ^{gratitude} ^{des} ^{hommes}
 La tâche ^{que} ^{la} ^{société} ^a ^à ^{accomplir} est difficile-
 tude et fort vaste. Et, du fait que le champ de notre culture par-
 ticulière a été peu travaillé en (domaine) ^{par} ^{ce} ^{travail}
 scientifiquement insufflé (à explorer scientifiquement),
 notre œuvre y trouvera, sur des horizons nouveaux, une abon-
 dante moisson de résultats. Mettre en pratique, dans toute
 la mesure du possible, les conclusions du Congrès d'Orreata, en ac-
 ceptant tous les travaux qu'elles ^{commandent} ^à ^{accomplir} ^{de} ^{manière} ^{vis}
 truellement, tels que la publication du (Livre) Compte rendu
 du Congrès et d'un Bulletin d'union ^{pour} ^{la} ^{Basque} ^{Basque}, la création
 d'une organisation d'impulsion et de travail ^{de} ^{la} ^{Basque} ^{Basque} ^{pour}
~~l'exploration intensive de nos richesses et leur mise en valeur~~
~~de manière à permettre d'atteindre à une culture et à un~~
~~travail scientifique de l'étude, le classement et la conservation des monu-~~

Dr. Broussain - Elorza jauna

Azparne'tik Epailaren 28-an 1919

Elorza jaunari agur.

Atzera bialtzen dizut *Euzko-Ikaskuntza* 'ren deia Gipuzkoa'ko izkeratik Lapurdi'ko izkerara itzulia (1).

Emengo ortografia erabili det *ch* ipiñiaz \hat{s} edo *x*' en ordez. Arazo ori ez da oindino erabakia. Akademiak egingo du.

Bestalde Gipuzkoa'ko izkelgiz egindako deian beredin itz kendu ditut, bildurrez emengotarrek ulertuko ez zituztelakotz, bereziki itz berri batzu, ala nola: ertizale, idatzi, ta abar. *Bazkun* adierazteko, aldean *Zozietate* ipiñi det.

Agian! (ojalá) Akademia laister jaioko da, ta agian euskara bakar bat, euskara bakun bat sortuko du, Euskaldun guztien izkera izango dena!

Nere goraintzi beroenak artu itzazu.

Biotzez zure

Dr. Broussain.

* * *

- (1) Jarraian emaiten dugu Lapurdiko euskalkira Broussain-ek egin zuen itzulpenaren kopia. Gipuzkerazkoaren itzulpena baino gehiago jatorrizko textuaren egokitze bat dela ikus dezake bakoitzak.
- (2) "Euskara bakar bat, euskara bakun bat sortzea", horra argi eta garbi emana, Euskal Akademia, laster jaioko beharrenean helburu nagusia.

EUZKO-İKASKUNTZA

Euskaldun aholadunen bihotzetan aspaldian, zagon, bizl eta bero, Eskualherriarren gogoari atsegín zaizkon gai batzu bildu, erabili, edertu eta zabalduko dituen Bazkun edo Zozietate baten egiteko chedea. Bazkun hori sortu da: Buruibaren lehenbiziko astean Oñati'n egin ziren bilkura orhoitgarri heien bidez bildu ziren guztien chede eta aburupenek emaniko indarrez etortzen da argirat, eta bilkura heietan agerturiko nahikunde eta erabakien aintzina eremaiteko lana bere eskukohartu du.

Guzien laguntzaz etortzen zaiku **Euzko-Ikaskuntza**. Lehenago gure herrian izan zen **Sociedad Vascongada de Amigos del País** delako baskunak erabili zituen bideetan utziriko hatzak hein batean gogoan ditugula, baina gure chedeak hatz horietan sartu eta hetsi gabe, Eskualherriari dagozkion gai mamitsu baruekoenen berritzaerak, argitzaerak, edertzaerak eta hedatzaerak etortzen gare.

Bertze herri batzuek, ikaskuntzaren bidez, aurkitu dute beren izapen bereziaren azkartzeko eskubide gogorrena. Arrotz herrietako ikas-eteche eta irakastegietan piztu den argiz argitu badire bertzeen gogoak, guk ere pitz ditzagun Irakas etcheetan guhauarenak diren argiak eta idek ditzagun, arthoski eta alegeraki, heien ateak, gure gogoak ere argi eta susta ditezen.

Lan dorpea eta zaila da hasi duguna, badakigu: oraino erabili ez diren gai ainhitz erabili beharko ditugu, bide berri ainhitz ideki. Hobe, bide berriak idekitzen baditugu, nehorik ikusi ez dituen tokietarat juanen gare bide horietan ibiliz; gai berrien erabiltzea lan nekea balinbada, gero, erabili ondoan, oraino nehorik ardietsi ez zituen onorioak ekar-eraziko ditugu. Eta Eskualherriarentzat bide berrien idekitzeak eta onorio berrien ekartzeak emanen daukun bozkarioaren esparantzak, lan neketsu eta pizuenak arindu, garhaltu eta ezdeustuko ditu.

Oñatiko biltzarretan hartu ziren erabakien obratzea eta aintzina eramaitea; biltzarre heletan erran eta egin zen guziaz gutun edo liburu bat izkirlatzea eta argitaratzea; **Euzko-Ikaskuntza**'n sartuko direnen artean, hedatzeko, bertze aldizkako liburuño bat egitea; eskuararen alde sortu diren chedé eta gogo berri horiek batetara bildu, chuchendu eta indartuko dituen Bazkun edo Zoizietate baten moldatzea, harri, zur, burdin eta neurtitzetan gure arbasoek utzi zituzten edergailu-hatzak bilhatzea, garbitzea, ikertzea eta beiratzea; edergailu-egileen berri barreiatuak biltzea.

Gizon-neurritze jakitateari dagozkioten lanetan hasiriko ikaskizunak aintzina eramaitea; midikuntzak eta osasunaren beiratzeko entseguek erakarri dituzten ikasgaien argitzea; leheneko Eskualdunen arteko lege eta ohidurak ikertuko dituzten bazkunak izendatzea; gure ikas-ettehelan emaiten diren irakaspena eta haur-hezpena bide berri hobetan jartzea; eta hitz batez erraiteko, iragan diren demborek beren errailetan daukaten mami gozoduna hartu, gureganatu, berritu, barne-barneko hezelasuna gal-arazt gabe, gorputz berrak eta ahal berriz jaunzi, eta aintzina juaiteko bidean ezarri.

Horra gure lana, horra gure lan guziz maitea, horra gure herriaren alde ekartzen dugun egitekoa.

Lan huntan guziak elgarren beharretan gare; orori dagokigu sail choragarri hau garhaipen gorenerat eramaitea.

Diputazloek beren eskuak zabaldu dauzkigute; herriko kontseilu ainhitzek ere bai. Hauiek bezala, denak etorri behar dire barne atsegingarri huntarat. Gure deia ororentzat doha: gisa guzietako Bazkun, Multzo eta Biltzarreentzat, aburu edo opinione guzietako gizonentzat.

Guzien laguntzaren azpian dago **Euzko-Ikaskuntza**'ren bizitzea; ororen laguntzaren pean dago gure herriaren bizitzea. Haren alde gatorzi gu; Eskualherriari dagozkion ikaskuntzak bizi ikusi nahi dituen, befor gure ganat.

1919'g. urteko Epaila'ren 2

Kanpiñon'dar Arturo,
Omea-Landakaria.

Juanmartiñena'lar Juan José,
Baparra'ko Diputazioa'ren ordezkari.

Urquijo, Julio,
Leongo Landakari-ordeko.

Urabayen'dar Lontxi,
Diruzala.

Arantzadi'lar Telesforo,

Eleizalde'lar Koldobika,

Allende-Salazar, Juan,

Echegarai'lar Karmelo,

Elorza'lar Julián,
Londakari ta Gipuzkoa'ko Diputazioa'ren ordezkari

Broussain, Pierre,
Bigan'ko Landakari-ordeko.

Armondarix'lar Klaudio,

Kunchillos'lar Jagoba,

Oraeta'lar José,

Autarkideak.

* * *

Unda'lar José María,
Araba'ko Diputazioa'ren ordezkari.

Elgezabal'lar Kosme,
Bilaka'ko Diputazioa'ren ordezkari.

Mujika, Gregorio,
Iñakari-ordeko.

Artoia'lar Biktór,
Diruzala-ordeko.

Bilbao'lar Esteban,

Landeta, Eduardo,

Gortazar'lar Jabier,

Eguren'dar Endrik,

Aprax'lar Angel,
Iñakari naguala.

1918-ko Abendoaren 22'an Bazkun hunek egin zuen biltzarrean, huna zer erabaki zuen: afdi batez 250 libera gutietatik emanen dituztenen izenak, barnellar multzo berezi batetan ezartzea; «betiereko-barnellarrena» delutuko da multzo hori, eta hortan sartuko direnek ez dute deusere gehiago eman behariko hilaibeteke; hola nahi dutelarik.

1919-ko Urtarrilaren 4'ean Bazkunak erabaki duenaren arabera eta erreglamentuko XIII-garren artikuluaaren azken zatik manatzen duenaren betetzeko, Oñat'ko biltzarkide izan ziren guziak «barnellar-iraslariri» tzat hartuko dire; hilaibete guziez zozbat emanen duten jakin dezagun, paper hunekin dohan chartela, hutsak behar bezala bete-ta, gibelerat igorri behar daukute. Chartel hau ukaiten ez badugu, barnellar-sari tiptiena ezarriko delegu.

* * *

Euzko-Ikaskuntza'ri igorri behar diren gauza guziak, adreza huntarat hel-araz: **Oficina de la Sociedad de Estudios Vascos — Palacio de la Diputación de Guipúzcoa — San Sebastián.**

Dr. Broussain - Elorza jauna

Azparne'n Maiatzaren 5-an 1919

Elorza lendakari jaunari agur.

Esaten al didazu noiz izango dan *Euzko-Ikaskuntza'ren* urrengo batzarra?

Ona zergatik galde au egiten dizudan.

Datorren ilabetean lengusu baten ezkontzara juan bear naiz eta Ekainaren (Garagarrilaren) 9-an, 10-an eta 11-an Azparne'tik urruti izango naiz. Iñola al bada nai nuke batzarre ori izan dedin Garagarrilaren 9-a baino lenago, edo 11-ren ondoan.

Baña makurbide ba-zaitzu batzarre ori aurreratzea edo atzeratzea, neure galdea ontzat ez artu.

Emengo diarioetan irakurri det España'ko erregek Madrile'ko diputadu batzarrea barraiatu duela eta auteskunde berriak egingo direla Garagarrilean.

Ola balimbada *Euzko-Ikaskuntza'ren* bazkideak ez dira noski alkarretara bilduko datorren ilabetean.

Zerbait jakin-eraziko al didazu.

Ontan uzten zaitut nire goraintzi beroena bidaltzen dizudalarik.

Dr. Broussain

Azparne'ko endorea (alkatea)

Dr. Broussain - Elorza jauna

Azparne'tik Buruilaren 4-an 1919

Elorza jaun lendakariari agur.

Orain zenbait egun, Urquijo gure adiskideak, Donostia'n esan zidan Izelzaingoa (Academia) sortzeko asmoa ba'zenduela flabete ontan, Araba'ko eta Naparra'ko diputazioen baimena itxedon gabe eta Izelzaingoko lendabiziko bazkideak alkarretara bildu nai zenituela Donostia'n flabete onen 17-tik eta 20-ra arte, Euskalerrri'ko ayuntamiento edo udalen batzarra egingo danean.

Nai nuke jakin zure asmoa Urquijo'k esan bezala danetz eta, orla balin ba-da, zein egunez bilduko diran Izelzaingoko bazkideak (1).

Eskua biotzez ematen dizut eta barkatu ematen dizudan arazoa.

Dr. Broussain-Salagoity

* * *

(1) Beste asko tokitan bezala, hemen nabari da Piarres Broussain-en kezka nagusia, *Izelzaingoa* edo Akademia dela.

Dr. Broussain - Elorza jauna

Azarne'tik Iraillaren 13-an 1919

Elorza jaun lendakariari agur.

Idatzi didazu "Euzko-Ikaskuntza'k" autetsi nauela itzaldi labur bat emateko ilabete onen 21-an, Donostia'ko batzarraren atzen egunean. Ni baino askozaz geiago diran Bilbo, Gazteiz ta Iruña'ko endore edo alkateen ondotik itzegiteko tshit lotsa izanarren, orla nai dezuten ezkerero, itz zenbait euskaraz esango ditut, emengo Euskaldunen izenean, agur bat emanaz batzarkide guztiei.

Donosti'ra elduko naiz datorren ostirale arratsaldean.

Nire goraintzi onenak zuretzat dira.

Dr. Broussain

Dr. Broussain - Angel Apraiz

Hasparren 23 Avril 1919

Cher monsieur et compatriote.

En vous priant de m'excuser de mon retard je vous renvoie les deux circulaires en français et en basque labourdin, avec les corrections que j'ai cru devoir y faire.

En ce qui concerne les titres adjoints aux membres de la commission permanente, vous pouvez garder pour le texte labourdin les mêmes appellations que dans le texte guipuzcoan.

Je vous prie seulement de mettre *diruzain* (labourdin) au lieu de *diruzai* (guipuzcoan) pour traduire le mot "trésorier".

Je ne suis pas partisan du suffixe "*tar*" accolé aux noms patronymiques et qui n'est qu'une imitation du "de" espagnol et français. Ecrivez donc simplement mon nom "Pierre Broussain", sans "tar".

Dans le texte labourdin je désire aussi que vous inscriviez tous les noms comme dans la circulaire en castillan, par exemple: Eleizalde Luis, et non Eleizalde Koldobika.

Les nouveaux prénoms créés par les disciples de Sabino Arana ne sont pas connus des Basques de ce côté-ci de la Bidassoa et de même les Labourdins, Bas-Navarrais et Souletins ne connaissent pas le "*tar*" appliqué aux noms de famille (1).

Quand j'aurai le plaisir de vous voir, au mois de Juin, à la prochaine réunion de la commission permanente de *Euzko Ikaskuntza*, je vous remettrai une liste de Basques-Français qui sont susceptibles d'entrer dans notre Société comme membres effectifs. Je ne connais pas tous les noms, bien entendu, mais je me ferai aider par les amis que j'ai dans les diverses régions du Pays Basque du Nord de la Bidassoa. Tous ceux que je vous désignerai ne signeront sans doute pas le bulletin de souscription, mais si la moitié d'entre eux entre dans notre Société, ce sera déjà un beau résultat.

Il est probable que si les préliminaires de paix sont signés au mois de Mai, les élections auront lieu en France au mois de Juillet, élections fort nombreuses, qui ont été arrêtées par la guerre, élections aux conseils municipaux.

paux, aux conseils d'arrondissement, aux conseils généraux, à la Chambre des Députés, au Sénat. Il vaudra donc mieux attendre une période plus calme, en Août ou en Septembre par exemple, pour envoyer aux Basques d'ici la circulaire de Euzko Ikaskuntza et les bulletins de souscription.

Vous me demandez d'écrire quelques lignes en français pour faire connaître aux Sociétés Scientifiques du monde entier l'existence de *Euzko Ikaskuntza*, au moyen d'un bulletin international. Je suis tout disposé à le faire, mais il me semble que les membres de la commission permanente sont plus qualifiés que moi pour rédiger cet appel aux Sociétés Savantes. Un ou plusieurs membres de la commission permanente pourraient rédiger cet appel en castillan, et je me chargerais ensuite de le traduire en français.

J'ai appris avec plaisir que la "Diputación" de Guipúzcoa avait approuvé la création d'une Académie Basque. J'espère bien que les autres "Diputaciones" suivront ce bon exemple, en donnant au Peuple Basque un organisme capable de conserver et d'enrichir notre langue nationale.

Veillez agréer, cher monsieur Apraiz, l'assurance de mes sentiments tout dévoués.

Dr. Broussain

* * *

(1) Aintzinean eman ditugun itzulpenen kopiak eta gutun honi Apraiz-ek egin ihardespena berrikus daitezke ohar hauen ondotik.

Dr. Broussain - Angel Apraiz

Hasparren 20 Juin 1919

Cher monsieur et compatriote.

J'ai reçu votre lettre me disant que vous avez l'intention de convoquer le Comité permanent de Euzko Ikaskuntza pour les 29 et 30 de ce mois. S'il n'y a pas d'inconvénient, ne pourriez-vous pas retarder la convocation de deux jours? Le dimanche 29 Juin je dois figurer, comme maire, à la procession de la Fête-Dieu (Corpus) et je ne pourrai quitter Hasparren que le lundi 30. Si notre réunion avait lieu le 1er et le 2 Juillet je pourrais y assister, mais encore une fois, si ce retard entraine des inconvénients pour les autres membres du Comité, ne tenez pas compte de mes observations. La présence de Mr. Aranzadi, le savant professeur de l'Université de Barcelone (1) sera plus nécessaire que la mienne.

D'autre part, si vous décidez de faire notre réunion de Donostia après les fêtes de San Fermin, je pourrai aisément me rendre à San Sebastian, car il n'y aura pas d'élections en France au mois de Juillet. On croit qu'elles seront renvoyées au mois d'Octobre. Je serai donc libre pendant tout le mois de Juillet.

Je suis en train de réunir des adresses de Basques de la rive Nord de la Bidassoa, susceptibles de devenir membres de Euzko Ikaskuntza. Je vous communiquerai ces noms et ces adresses lors de notre première entrevue à

San Sebastian. J'ai déjà pas mal de noms des cantons de Saint-Jean-de-Luz, Ustaritz, Hasparren. Sur ma prière, quelques-uns de mes amis me donnent les adresses pour les cantons de Espelette, Baigorri, St. Jean-Pied-de-Port, St. Palais, Iholdy, Mauléon. Je ne veux pas vous donner l'illusion que tous les Basques de cette région à qui vous enverrez les bulletins de souscription consentiront à devenir membres de notre Société. Pour me part, je m'estimerais heureux si le quart de ces personnes s'engage à verser 12 pesetas par an.

Vous me demandez dans votre lettre du 14 Juin de vous envoyer une courte notice en français et en basque labourdin pour la propagande à faire en faveur de la Société. Pour cela j'aimerais bien que vous m'envoyiez un modèle en espagnol que je pourrais ensuite traduire en français et en labourdin. Il serait bon, en effet, que cette notice fut rédigée de la même façon pour les deux régions basques du Sud et du Nord de la Bidassoa.

Qu'a-t-on décidé pour l'Académie Basque? Il y a quelque temps notre honorable président, Mr. Elorza, m'a écrit, me disant que la Diputacion de Guipuzcoa avait approuvé la création de l'Académie. Savez-vous si les autres Diputaciones ont pris des mesures analogues? Un de mes amis de Bilbao m'a écrit qu'il avait des craintes au sujet de la décision que prendra la Diputacion de Biscaye. D'après lui, par suite du remaniement de certaines circonscriptions électorales de Biscaye opéré par le Gouvernement Espagnol, les nationalistes pourraient perdre la majorité qu'ils détiennent actuellement à la Diputacion, et la nouvelle majorité antibasque refuserait de voter une subvention en faveur de l'Académie projetée. Aussi, je suis impatient de savoir quel résultat donneront les élections provinciales en Biscaye.

Dans l'espoir de vous revoir prochainement, recevez, cher compatriote et ami, l'assurance de mes sentiments tout dévoués.

Dr. Broussain

1918'ko urtarrilean Bilbao'n egin zenduen itzaldia (Universidad Vasca) artu det eta atsegin aundiaz irakurri det (2).

Eskerrik asko.

Euzko Ikaskuntza 'ren batzordea Donostia'n bilduko danean, deia bialdu dezadazut otoi zortzi egun aurretik, nire mugaizua (pasaportea) eskatu dezadan gatik Baiona'ko Sous-Préfet edo gobernadoreari.

* * *

(1) Aranzadi ta Unamuno, Telesforo (1860-1945), euskaldun antropologo ezaguna.

(2) A. Apraiz, "Universidad Vasca. Conferencias organizadas por la Junta de Cultura Vasca" Bilbao, 1919.

Dr. Broussain - Angel Apraiz

Hasparren 30 Juin 1919

Cher compatriote et ami

J'ai quitté St. Sébastien sans vous donner les adresses des quelques personnes à qui il serait nécessaire d'envoyer tout de suite les circulaires en français et en labourdin, ainsi que le bulletin de souscription. Ce sont des personnes éminentes du Pays Basque-Français dont nous devrions voir les noms inscrits les premiers sur la liste de *Euzko Ikaskuntza*, car leurs adhésions entraîneront certainement celles de beaucoup de nos compatriotes de cette région-ci.

Avant notre réunion de la "Junta permanente", au mois de Septembre, j'aurai, j'espère, l'occasion de vous remettre d'autres listes de noms, car je compte aller à Donostia au mois d'Août pour voir ma nièce mariée à Madrid et qui doit passer la saison d'été à San Sebastian avec ses enfants.

N'oubliez pas, je vous prie, de m'envoyer un numéro d'*Euzkadi* qui donnera les résultats complets des élections aux "Diputaciones" des trois provinces et de la Navarre.

Recevez, cher ami, une cordiale poignée de mains de votre dévoué

Dr. Broussain

* * *

(1) Ikus jarraian emaiten dugun Broussain-ek berak prestatu zirriborro baten kopia. Bestalde badaude haren paperetan, Iparraldeko lau hegaletarik, adiskide batzuek bildu zizkioten zerrendak, hala nola Albert Constantin medikuak Ziberotik, Frédéric de Saint-Jayme-k Amikuzetik, Blaise Adéma apezak Uztaritzetik, Frank apezak Ezpeletatik... Zorigaitzez urrats horiek orok ez zuten jarraipenik izan, Piarres Broussain bera hilez geroz, Hegoaren eta Iparraren arteko lokarri nagusia eten baitzen.

Juanchato, archipêtre	Alexandre Dresse	Louis de K. Joyeux
Héguaymay	J: Soubertelle	Elisague, pharmacien
Antyala	J: Duronié	J: Mendiondo
Ou'cas	Imble Lecours	Mendiondo, pharmacien
Stéphanoyan	Charles Dubant	J. B. Ritou
Asiant	Haluyeta	L. Cal. Bracabal
Héguy	Déini' Ichéroy - Antyala	Cap. Hiriart
Agornica	Enanténe	Cap. Huretoy
Laminona	J: Mendibone	L. Cal. Lebrun
Lavalbi - Dinatiguy	J: Kycagner	Héguyléroy
Lourimbou	Michel Enca	Jules Ichéroy
Nivlas & Aicanyon	Léon Lichamps	J: Orgoyo
de'm Sala	Léon Ritou	St. Ritou
Péris	Lavalbi	D. Khabal, notaire
de Sanby	Marmueh	Ichéroy, curé
J: Hariope	Pasccho Aguirre	Louis Harich
Boothé	Bravan	Jilamyroy curé
J: Agilén	J: Casdusant	Cethabe - Ador
Lavea	J: Lave	Cethabe - Jure
Dangayguantz	Etcheverri - Arda	Henni Dresse
Kimbaren	Salaberry, (notaire)	Jochin Dresse
Petit, notaire	Aphalo, médecin	Raymond Dresse
Olazabal	de K. Joyeux, St. Juste	notaire
J: Duruty	Alfred Beroyan	
J: Carrimo	Diciant, notaire	
Hapet	Diciant, absent	
Larion	Campagne, notaire	
Mendibone	Jusicayon, notaire	
J: Elcagaray	Ovide l' Arthur - Lancker	
Héguay	Armand l' Arthur - Lancker	
Fayal de	Royals, Abbadié	
Lahet Juyan	Luda, pharmacien	
J: Juanchato	Salaberry, fils	
Huretoy	Béguerie	
Blanca Lichamps	Béguerie	
J: Dabozac, curé	Etcheandz, médecin	
	Béguerie	
	Baron de Jans	
	J: Etchepary	
	Lancker, St. en médecine	

Dr. Broussain - Angel Apraiz

Hasparren 14 Juillet 1919

Cher compatriote et ami.

J'ai reçu votre aimable carte, dans laquelle vous me donnez les résultats des élections provinciales. D'après ce que m'avait dit Mr. Eleizalde je craignais que ces résultats ne fussent beaucoup plus mauvais pour le parti nationaliste. Deux sièges perdus en Biscaye, ce n'est pas beaucoup, en somme, et il faut espérer qu'aux élections qui auront lieu dans deux ans, les nationalistes prendront une belle revanche. L'élection de Mr. Irujo en Navarre m'a fait plaisir. Je m'y attendais car Mr. Cunchillos me l'avait fait espérer (1).

Dans quelques jours vous recevrez la visite d'un prêtre de Hasparren, Mr. l'abbé Mendy, qui va faire une tournée en Espagne pour recruter des élèves pour le collège St. Joseph de Hasparren (2).

Autrefois ce collège recevait jusqu'à cent élèves espagnols qui venaient ici pour apprendre le français. Il en venait de partout, du Pays Basque, des Asturies, de Galice, de Madrid et même d'Andalousie. Puis, peu à peu, le nombre des élèves a diminué à cause de la concurrence des Frères des Ecoles Chrétiennes qui ont ouvert un grand collège français à St. Sébastien, à Ategorrieta.

Ensuite la guerre est venue qui a tari complètement le recrutement des élèves espagnols.

Je vous serais obligé de donner à l'abbé Mendy l'adresse de tous les membres de la Commission permanente de *Euzko Ikaskuntza*. Il se propose d'aller les voir pour les prier de faire connaître dans leur entourage le collège de Hasparren.

Mon excellent ami, l'abbé Lopez, directeur du collège St. Joseph, bascop-hile ardent, est tout à fait décidé à créer un cours de langue basque dans son collège, si seulement il peut avoir une trentaine d'élèves Basques, de la Navarre et des trois provinces. Mais pour cela il lui faut une trentaine d'élèves Basques-Espagnols. Ce sera une innovation très importante car jusqu'à présent on n'a pas encore enseigné l'euskara dans une école du Pays Basque-Français, et l'exemple ainsi donné par l'abbé Lopez sera certainement suivi par d'autres.

Du reste, l'abbé Lopez compte aussi aller un peu plus tard en Espagne pour faire de la propagande en faveur de son collège, dans les milieux nationalistes.

Il m'a dit qu'il ira vous voir à San Sebastian dans le courant du mois d'Août. Puis il ira à Bilbao. C'est un homme fort intelligent et tout-à-fait sympathique. Je ne doute pas que vous lui ferez un excellent accueil.

Veuillez agréer, cher ami, l'assurance de mes sentiments tout dévoués.

Dr. Broussain Salagoity

* * *

- (1) Zinezko abertzale bezala, Piarres Broussain Hazparneko "endoreak" begia atxikitzen zion Euskal Herri osoko politikari: Lapurdikoari bezainbat Bizkaiakoari edo Nafarroakoari.
- (2) Hazparne San Josepe Ikastegiko bi buruzagiak ziren orduan aita Mendy ekonomoa eta aita Lopez de la Vega zuzendaria. Beren xede ederra ez zuten bete ahal izan. Aita Lopez horrek egin zuen bizkitartean geroago Hazparneko Bihotz Sakratuaren kapera aberatsa. Nonbait harrizko lanak errazago dira izpirituzkoak baino.

Broussain Jauna (1859-1920)

Bidasoa'tik onuntz bizi geranentzat Broussain jaunaren izena ez zan ondo ezagutua. Bahan orain urte gutxi, Euzko Ikaskuntza jaio zan ezkeroztik, bere izena izan da Euskaldunen artean ospetsuenetakoa. Bere lan indartsuak, len aitatutako Batzarrean, baita ere Euskaltzaindia'n Euskaldunen biotzeraño iritzi dira.

Zein goxoki aditu ziran bere itz legunak, gure euskara maitean esanak, Donosti'n bildu zan Udal-Batzarrean: Azken itzak txalokada bero bat eragotzi zuten; eta txalo aiek ziran Euskaldun guzien txaloak, itzaldi arren poderioz Euskaldun denak batu ziralako.

Geroztik askotan zetorren Azparne'tik Donosti'ra edo Bilbo'ra; batzuetan Eusko-Ikaskuntza'ko Batzarrera, gure irakastiak kemendu ta zabaldu naiaz; beste batzuetan Euskaltzaindia'ren Batzarrera, gure izkuntza nola piztuko dan beste euskaltzain artean erabiltzera.

Gizon arduratsua zan. Bere aldeko guziak asko maite zuten, batez ere Azparne'tarrak. Urte askotan izandu zan Azparne'ko endore edo auzapez. Azkeneko auteskundetan aldun edo "conseiller général" autatu zuten bere adiskideak.

Orain ille gutxi onunz, Kanpion jaunarekin alkartuta, eskeñi zion Euskaltzaindia'ri agerbide edo "informe" sutsu bat, euskera batutzeko zer egin bear dan adieraziaz. Au zan bere betiko gogoia. Idazki batean ala esaten zuen: "Agian Akademia laister jaioko da ta agian euskara bakar, euskara bakun bat sortuko da Euskaldun guztien izkera izango dana".

Alako gizonen bearrean arkitzen da gure erria. Orrengatik izan da ain ittuna bere eriotza. Goian bego!

(*"Euzko-Ikaskuntzaren Deia"*, Donostia, II-6, 1920. 2, 18. orr.)